

Nekazaritzako Laguntza eta Zabalkunde Zerbitzuak, 2012ko ekainaren 15ean egindako txostenean, onartzea proposatu zuen erremolaxaren ekoizleei 2011/2012 komertzializazio kanpainarako emango zaizkien laguntzen deialdia.

Aginduzko txostenak aztertu eta gero, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

#### ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Erremolaxaren ekoizleei 2011/2012 komertzializazio kanpainarako emango zaizkien laguntzen deialdia onartzea, zehaztasun hauen arabera:

- Eskaerak aurkeztea: 2011-2012 kanpainarako laguntzak emate-rakoan, 2011ko otsailaren 1etik maiatzaren 13ra aurkeztutako eskaera bakarrik jasotako datuak soilik hartuko dira kontuan.

- Kreditu erreserba bat ezartzea, 409.500,00 eurokoa, Arabako Foru Aldundiaren 2012rako indarreko gastu aurrekontuko 40.1.03.42.00.-450.00.07 "Erremolaxaren Arloko Planaren laguntzak" partidaren kontura, erremolaxaren ekoizleei 2012rako emango zaizkien laguntzen oinarrietan aurreikusitako laguntzetarako; xedapen erreferentzia: 12.1.12.105.2906/000.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko uztailaren 24.- Diputatu nagusia, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.- Nekazaritza Saileko foru diputatua, FRANCISCO DE BORJA MONJE FRÍAS.- Nekazaritza zuzendaria, LUIS JAVIER ROMÁN DE LARA.

#### Foru Aginduak

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

4568

**351/2012 FORU AGINDUA, uztailaren 11koa, Bergondako (Lantarón) SAUR 3 Bizitegi Sektorearen Plan Partzialaren espedientearen behin betiko onarpen baldintzatuari buruzkoa.**

#### I.- AURREKARIAK

Lehena.- Otsailaren 6ko 37/2012 Foru Aginduaren bidez onartu zen behin betiko Lantarongo Plangintzako Arau Subsidiarioen 12. aldarazpena, Bergondako 35-2-1217 lurzattia birsailkatzeari buruzkoa. Aldarazpen horren bitartez 4.891,22 m<sup>2</sup>-ko lurzoru urbanizaezina bizitegirako lurzoru urbanizagarri moduan birsailkatu zen, gerora udalerririk horretan babes publikoko 8 etxebizitza eraiki ahal izateko.

Bigarrena.- 2012ko maiatzaren 17an eta 7487 sarrerako erregistro zenbakiarekin, Lantarongo Udalaren ofizio bat jaso zen. Ofizio horrekin batera Bergondako SAUR 3 Bizitegi Sektorearen Plan Partzialaren espedientea bidali zen, egoki iritziz gero behin betiko onarpena emateko xedez.

Hirugarrena.- Espedienteko agiriak aztertuta, izapideetarako funtsezkoak diren honako egitateak ondorioztatzen dira:

a) Alkatetzak 2012ko martxoaren 28an emandako dekretuaren bidez hasieran onartu zen plan partzial hori eta 20 egun baliodunetan jendaurrean erakustea erabaki zen. Era berean, horren gaineko iragarkiak argitaratu ziren ALHAOn (42. zk., 2012ko apirilaren 13koa) eta 2012ko apirilaren 4ko "El Correo" egunkarian.

b) Hasierako onarpen horren berri eman zitzaion Bergondako Administrazio Batzarrari.

c) Jendaurrean egon zen bitartean ez zen alegaziorik aurkeztu. Beraz, udalbatzak 2012ko maiatzaren 9an ohiko osoko bilkuran behin-behineko onarpena eman zion espedienteari.

Laugarrena.- Diputatu nagusiaren uztailaren 21eko 62/2011 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritz, behin betiko onarpena -hura eman ala ez- Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuari dagokio, plan partziala aztertu eta espedienteak jendaurrean arauzko epea bete ondoren.

El Servicio de Ayudas y Divulgación Agraria, en informe de 15 de junio de 2012, propone aprobar la convocatoria a los productores de remolacha para la campaña de comercialización de remolacha 2011/2012.

Vistos los informes preceptivos, a propuesta del Diputado Foral de Agricultura y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada por el mismo en el día de hoy,

#### ACUERDO

Primero.- Aprobar la convocatoria de las ayudas a los productores de remolacha para la campaña de comercialización de remolacha 2011/12, con arreglo al siguiente detalle:

- Presentación de solicitudes: En las ayudas para la campaña 2011-12 se tendrán en cuenta únicamente los datos recogidos en la Solicitud Única presentada desde el 1 de febrero hasta el 13 de mayo de 2011.

- Establecer una reserva de crédito de 409.500,00 euros, con cargo a la partida 40.1.03.42.00.450.00.07 "Ayudas Plan Sectorial remolacha" del vigente Presupuesto de gastos de Diputación Foral de Álava para el ejercicio 2012, para las ayudas previstas en las bases de ayuda a los productores de remolacha para el año 2012, con referencia de contraído 12.1.12.105.2906/000.

Vitoria-Gasteiz, 24 de julio de 2012.- Diputado General, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.- Diputado Foral de Agricultura, FRANCISCO DE BORJA MONJE FRÍAS.- Director de Agricultura, LUIS JAVIER ROMÁN DE LARA.

#### Órdenes Forales

### DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

4568

**ORDEN FORAL 351/2012, de 11 de julio, de aprobación definitiva con condiciones del expediente de Plan Parcial del Sector Residencial SAUR 3 en Bergüenda, municipio de Lantarón.**

#### I.- ANTECEDENTES

Primero.- Por Orden Foral 37/2012 de 30 de 6 de febrero fue aprobado definitivamente el expediente 12<sup>a</sup> de Modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Lantarón, relativa a la reclasificación de la parcela 35-2-1217 en Bergüenda. Dicha modificación reclasificaba de una superficie de 4.891,22 m<sup>2</sup> de suelo no urbanizable a suelo urbanizable residencial para posibilitar la futura construcción de 8 viviendas de promoción pública en la mencionada localidad.

Segundo.- En fecha 17 de mayo de 2012 y número de registro de entrada 7487 se recibió un oficio del Ayuntamiento de Lantarón remitiendo el expediente del Plan Parcial del Sector Residencial SAUR 3 en Bergüenda con el fin de que le fuera concedida la aprobación definitiva si procediera.

Tercero.- Del examen de los documentos que componen el expediente se desprenden los siguientes hechos fundamentales en su tramitación:

a) Por Decreto de Alcaldía de fecha 28 de marzo de 2012, se acordó aprobar inicialmente el Plan Parcial y someterlo a información pública por el plazo de 20 días hábiles, haciéndose efectiva mediante la inserción de los respectivos anuncios en el BOTHA nº 42, de 13 de abril de 2012 y en el periódico "El Correo" de 4 de abril de 2012.

b) Dicha aprobación inicial fue notificada a la Junta Administrativa de Bergüenda.

c) Dentro del plazo de exposición pública no fue presentada alegación alguna, procediendo el Ayuntamiento, en sesión ordinaria del día 9 de mayo de 2012, a la aprobación provisional del expediente.

Cuarto.- De conformidad con lo dispuesto en el Decreto del Diputado General número 62/2011, de 21 de julio, la aprobación definitiva, si procediese, corresponde a la Diputada titular del Departamento de Medio Ambiente y Urbanismo, a la vista del documento del Plan Parcial y del resultado de su exposición pública durante el plazo legal.

## II.- OINARRIAK

Lehena.- Municipal Suztatu, S.A. sozietate publikoaren eta Lantarongo Udalaren bidez hasitako agiria izapidetzean Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean ezarritako prozedura bete da.

Bigarrena.- SAUR 3 bizitegi sektoreak, urbanizagarri moduan sailkatuta dagoenak, 4.891,22 m<sup>2</sup>-ko zabalera dauka; Bergondako ipar-mendebaldeko hiri lurzoruaren mugan dago, bide baten eta Omecillo ibaiaren artean dagoen hegal batean. Malda handia dauka eta, beraz, arlo horizontalenak aprobetxatuko dira etxebizitzak eraikitzeke.

Hirugarrena.- Antolamendu xehekatuak babes publikoko familia bakarreko 8 etxebizitza atxikiz osatutako programa garatu du; 0,25 m<sup>2</sup>/m<sup>2</sup>s-ko gehieneko eraikigarritasunarekin; gehienez BS+1 solairu eraiki ahal izango dira eta dentsitatea biztanle bakoitzeko 16,35 etxebizitzakoa izango da. Halaber, plan partzial horretan gutxieneko azalerak aurreikusi dira Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 79. artikuluan ezarritako horniduretarako, eta 408,29 m<sup>2</sup>-ko azalera duen espazio libreen sistema orokorra du atxikita –hiriko parke publikoa-.

Laugarrena.- Agiri teknikoak oro har bete egiten ditu Lantarongo indarreko Arau Subsidiarioetan ezarritakoa, baita aplikatu beharreko hirigintzako legeria ere; hala ere, zuzen daitezkeen hutsune batzuk antzeman dira.

Bosgarrena.- Plan partzialak bete egiten ditu espaloari ezarritako gutxieneko neurriak: 2 metroko zabalera; horrela ezarri da irisgarritasun baldintzei buruzko 68/2000 Dekretuaren II. eranskinen 3.2. artikuluan. Alabaina, ibilgailuetarako ibiak formalizatzean gutxienez 1,50 metroko zabalera duen espaloia utzi behar da, luzetarako eta zeharkako maldak gehienez ehuneko 6koa eta ehuneko 2koa izango dira hurrenez hurren, eta 13. planoko 1/50 eskalako xehetasunaren (“Hirigintzako irisgarritasun baldintzak”) eta proposatutako oinplanoa jasotzen duten planoen artean dagoen kontraesan grafikoa 1/500, 1/300 eta 1/250 eskaletan konponduko da. Ildo horretan, zerbitzuen azpiegituretarako (kasu honetan gas biltegia) gordetako espaziora ibilgailuak sartzeko aukera kontuan hartuko da, hura mantentzeko lanak egin behar direnako; hori gorabehera, II. eranskinen 3.5. artikuluan ibietarako ezarritako zehaztapenak beteko dira.

Seigarrena.- Zerbitzuen sareen trazadurari eta ezaugarri nagusiei dagokienez, hornidura sarean eskuragarri dagoen emaria adieraziko da (HPAren 53.4 artikulua).

Zazpigarrena.- Egikaritzearen antolamendurako eta kudeaketarako zuzentarauei buruzko dokumentazioari dagokienez, plan partzialean hirigintzako kudeaketaren plano bat jaso behar da. Plano horrek Lantarongo indarreko arau subsidiarioak bete behar ditu eta grafikoan bidez erakutsiko ditu plan partzial honen memoriako 7 eta 8 idatz zatietan ezarritako zehaztapenak; hau da, kudeaketa egiteko aurreikusi den egikaritze unitatea adieraziko da eta horren denborazko antolaketa ezarriko da, 2/2006 Legearen 68. artikulua betez betiere. Horretarako, hain zuzen, urbanizazio jarduketarako programa (2/2006 Legearen 135. artikulua), urbanizazio proiektua eta berriro lurzati-katzeko proiektua onartu beharko dira.

Zortzigarrena.- Agiriko alderdi formal eta jakin batzuei dagokienez, erraz zuzen daitezkeen hutsune batzuk antzeman dira:

- Agiriaren memoriako 7 eta 9 idatz zatien izenak Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 68. artikuluan ezarritakora egokituko dira.

- Bestalde, 37.1.h) idatz zatian sotoaren baldintzak azaltzen direnean, xehetasun hau erantsiko da: “1ml. igo ahal izango da” eta gero beste esaldi honekin osatuko da: “gehienez, 1ml. igo ahal izango da”.

Horiek horrela, dagozkidan ahalmenez baliatuz,

## XEDATU DUT

Lehena.- Behin betiko onartuko da Bergondako (Lantaron udalerría) SAUR 3 Sektorearen Plan Partzialaren espedientea, hurrengo baldintzak betetzen badira:

## II.- FUNDAMENTOS

Primero.- El documento, iniciado a través de la Sociedad Pública Municipal Suztatu, S.A. y el Ayuntamiento de Lantarón, ha sido tramitado siguiendo el procedimiento establecido en la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco.

Segundo.- El sector residencial SAUR 3, clasificado como urbanizable, tiene una extensión de 4.891,22 m<sup>2</sup> de superficie, se encuentra situado en el límite del suelo urbano al noroeste de Bergüenda en una ladera que transcurre entre un camino y el río Omecillo. Tiene una pendiente acusada, por lo que las áreas más horizontales son las que se aprovecharán para ubicar las viviendas.

Tercero.- La ordenación pormenorizada desarrolla un programa de 8 viviendas unifamiliares adosadas de promoción pública, con una edificabilidad máxima de 0,25 m<sup>2</sup>/m<sup>2</sup>s, con un número máximo de plantas de PB+1 y una densidad resultante de 16,35 viv/ha. Asimismo, en dicho plan parcial, se prevén las superficies mínimas para dotaciones establecidas en el artículo 79 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, además de tener adscrito un sistema general de espacios libres –parque urbano público- de 408,29 m<sup>2</sup> de superficie.

Cuarto.- El documento técnico cumple en líneas generales lo estipulado en las Normas Subsidiarias de Lantarón vigentes, así como la legislación urbanística aplicable, si bien se han detectado algunas deficiencias subsanables.

Quinto.- El Plan Parcial cumple con las dimensiones mínimas exigidas para la acera, cuya anchura es de 2 metros, definidas artículo 3.2. del anejo II del Decreto 68/2000 sobre condiciones de accesibilidad. No obstante, los vados para vehículos se formalizarán de tal manera que quede un ancho de acera mínimo de 1,50 metros con las pendientes longitudinal y transversal máximas del 6 por ciento y 2 por ciento respectivamente, resolviendo la contradicción gráfica existente entre el detalle a escala 1/50 del plano 13: “Condiciones de accesibilidad urbanística” y los planos que recojan la planta de la propuesta a escalas 1/500, 1/300 y 1/250. En este sentido, se tendrá en cuenta la posibilidad de acceso de vehículos al espacio reservado a infraestructuras de servicios (en este caso, depósito de gas) para labores de mantenimiento del mismo y que cumplirá con las determinaciones establecidas para vados en artículo 3.5 del anejo II.

Sexto.- En lo referente al trazado y principales características de las redes de servicios, en la red de abastecimiento se indicará el caudal disponible (artículo 53.4 del RPU).

Séptimo.- En cuanto a la documentación referente a las directrices de organización y gestión de la ejecución, el Plan Parcial deberá incluir un plano de gestión urbanística conforme a las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Lantarón vigentes, reflejando gráficamente las determinaciones establecidas en los apartados 7 y 8 de la memoria de este Plan Parcial, esto es, indicando la unidad de ejecución prevista para el futuro desarrollo de la gestión y fijando la organización temporal de la misma, conforme al artículo 68 de la Ley 2/2006, la cual requerirá la aprobación del programa de actuación urbanizadora (artículo 135 de la Ley 2/2006), el proyecto de urbanización y el proyecto de reparcelación.

Octavo.- En relación con algunos aspectos formales y puntuales del documento, existen algunas deficiencias fácilmente subsanables:

- La nomenclatura de los apartados 7 y 9 de la memoria del documento se adaptará a la determinada en el artículo 68 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo.

- Por otra parte cuando en el apartado 37.1.h) se habla de las condiciones referentes al sótano, se matizará “podrá elevarse 1ml.” completándolo con la frase: “podrá elevarse, como máximo, 1ml.”.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

## DISPONGO

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de Plan Parcial del Sector SAUR 3 de Bergüenda, municipio de Lantarón, con las siguientes condiciones:

1. Hirigintzako Plangintzari buruzko Arautegiak (HPA) haurrentzako jolas eta atsedeen eremuetarako zehazten dituen azalerak justifikatu behar dira; horietan 12 metroko diametroa duen biribil bat egin ahal izango da.

2. Ibilgailuetarako ibiak formalizatzean gutxienez 1,50 metroko zabalera duen espaloia utzi behar da eta luzetarako eta zeharkako maldak gehienez ehuneko 6koa eta ehuneko 2koa izango dira hurrenez hurren. Ildo horretan, zerbitzuen azpiegiturarako (kasu honetan gas biltegia) gordetako espaziora ibilgailuak sartzeko aukera kontuan hartuko da, hura mantentzeko lanak egin behar direnerako; II. eranskineko 3.5. artikuluan ibietarako ezarritako zehaztapenak beteko dira.

3. Hornidura sarean eskuragarri dagoen emaria adieraziko da (HPAren 53.4 artikulua).

4. Hirigintzako kudeaketaren plano bat jaso behar da. Plano horrek Lantarongo indarretako arau subsidiarioak bete behar ditu eta grafikoen bidez erakutsiko ditu plan partzial honen memoriako 7 eta 8 idatz zatietan ezarritako zehaztapenak.

Bigarrena.- Aipatutako aldaketak ez dira funtsezkoak. Beraz, zuzendutakoan espedientea Foru Aldundiari igorriko zaio, berriro jendaurrean jarri gabe, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezten eta argitara dadin.

Hirugarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratuko da.

Laugarrena.- Ebazpen honek administrazio bidea agortu du; beraren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan eta horretarako bi hileko epealdia egongo da ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko uztailaren 11.- Ingurumen eta Hirigintza Saileko Foru Diputatua, MARTA RUIZ CERRILLO.

## INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

4569

**352/2012 FORU AGINDUA, uztailaren 11koa. Honen bidez, baietsi egiten da Iruña Okako Udalak egindako eskaera eta behin betiko onartzen da Langraiz Okako (Iruña Oka) bizitegitarako SAU-N2 sektoreko 1-3078 lurzatian, non interes publiko eta sozialeko irakaskuntza zentroak eta zerbitzuak egin nahi baitira, gauzatzeko den plan bereziaren espedientea.**

### I.- AURREKARIAK

Bakarra.- Iruña Okako Udalak errekerimendua aurkeztu du, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean 2012ko ekainaren 18an sarturiko idazki baten bidez eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 44. artikuluan xedaturikoaren babesean, maiatzaren 25eko 267/2012 Foru Aginduaren aurka, hura baliogabetzeko eskatuz. Foru agindu horren bidez, ukatu egiten da Langraiz Okako bizitegitarako SAU-N2 sektoreko 1-3078 lurzatian, non interes publiko eta sozialeko irakaskuntza zentroak eta zerbitzuak egin nahi baitira, gauzatzeko den plan bereziaren espedientearen behin betiko onarpena.

### II.- OINARRIAK

Lehenengoa.- Iruña Okako Udalak bere idazkian adierazi duenez, huts bat egin da hirigintza araudia aplikatzean plan berezia behin betiko onartzea ezesten duen ebazpenean.

Bere iritziz, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 35.3 artikuluan xedatzen duena oinarri hartuz, hirigintza eraikigarritasuna da irabazteko asmoa duten erabilera eta jardueri dagokien eraikigarritasun fisikoa, hura kanpo dagoelarik eremuan lehendik dauden edo, aurreikuspenen arabera, gero egongo diren hornidura publikoetatik.

Kontuan izanda aldundiak onartu beharreko plan bereziak hornidura publikorako xedea duen lurzati baten eraikigarritasun fisikoa

1. Justificar las superficies que el Reglamento de Planeamiento Urbanístico (RPU) define para áreas de juego y recreo de niños en las que podrá inscribirse un círculo de 12 metros de diámetro.

2. Los vados para vehículos se formalizarán de tal manera que quede un ancho de acera mínimo de 1,50 metros con las pendientes longitudinal y transversal máximas del 6 por ciento y 2 por ciento respectivamente. En este sentido, se tendrá en cuenta la posibilidad de acceso de vehículos al espacio reservado a infraestructuras de servicios (en este caso, depósito de gas) para labores de mantenimiento del mismo y que cumplirán con las determinaciones establecidas para vados en artículo 3.5 del anejo II.

3. En la red de abastecimiento se indicará el caudal disponible (artículo 53.4 del RPU).

4. Incluir un plano de gestión urbanística conforme a las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Lantarón vigentes, reflejando gráficamente las determinaciones establecidas en los apartados 7 y 8 de la memoria de este Plan Parcial.

Segundo.- Las modificaciones señaladas no son sustanciales, por lo que una vez subsanadas se elevará el expediente a la Diputación Foral, sin necesidad de someterlo a un nuevo trámite de información pública, con el fin de declarar su ejecutoriedad y proceder a su diligenciación y publicación.

Tercero.- Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Cuarto.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse directamente recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, 11 de julio de 2012.- La Diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, MARTA RUIZ CERRILLO.

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

4569

**ORDEN FORAL 352/2012, de 11 de julio, de estimación del requerimiento formulado por el Ayuntamiento de Iruña de Oca y aprobación definitiva del expediente de Plan Especial de la parcela 1-3078, destinada a centros docentes y servicios de interés público y social, del Sector Residencial SAU-N2 de Nanclares de la Oca, municipio de Iruña de Oca.**

### I.- ANTECEDENTES

Único.- Mediante escrito, con fecha de entrada en el Registro General de la Diputación Foral de Álava del día 18 de junio de 2012, el Ayuntamiento de Iruña de Oca formula, al amparo de lo dispuesto en el artículo 44 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, requerimiento contra la Orden Foral nº 267/2012, de 25 de mayo, por la que se deniega la aprobación definitiva del expediente de Plan Especial de la parcela 1-3078, destinada a centros docentes y servicios de interés público y social del Sector residencial SAU-N2 de Nanclares de la Oca, solicitando su anulación.

### II.- FUNDAMENTOS

Primero.- El Ayuntamiento de Iruña de Oca manifiesta en su escrito que se ha producido un error de aplicación de la normativa urbanística en la resolución denegatoria de la aprobación definitiva del Plan Especial.

Entiende que de conformidad con lo dispuesto en el artículo 35.3 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo la edificabilidad urbanística es la edificabilidad física correspondiente a los usos y actividades de carácter lucrativo, quedando excluida la edificabilidad física de las dotaciones públicas existentes o previstas para el ámbito.

Dado que el Plan Especial sometido a la aprobación de la Diputación solamente modifica la edificabilidad física de una parcela